

UD 2-AKTIBOKO, PASIBOKO ETA ZERBITZUETAKO BANKU ERAGIKETAK

BANKUEN PASIBOKO ERAGIKETAK

1. Sarrera

Bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek (banku-erakundeak) bezero aurreztaileen funtsak biltzen dituzte, ondoren, bezero inbertitzaileei behar dituzten kredituak, maileguak, ... emateko, bestelako hainbat zerbitzu eskaintzearekin batera. Eragiketa horiek banku-eragiketak dira eta honela sailkatuko ditugu: pasiboak, aktiboak eta zerbitzuak.

Banku-eragiketen sailkapena	
Pasiboko eragiketak	Aktiboko eragiketak
Ageriko kontu korronteak <i>Cuentas corrientes a la vista</i>	Kredituak
Aurrezki-kontuak	Maileguak
Epe finkorako ezarpenak edo gordailuak <i>Imposiciones o depósitos a plazo fijo</i>	Efektuen deskontua
Gordailu-ziurtagiriak Certificados de depósito	Abalak, fidantzak eta onarpenak Avales, fianzas y aprobaciones

1. irudia: Banku-eragiketa garrantzitsuenak

2. Banku-kontuak

Pasiboko eragiketen bidez, bezeroek banku-erakundeen esku jartzen dituzte funtsak. Gordailu horiek **banku-kontu** bezala ezagutzen dira. Pasiboko eragiketak direla esaten dugu **bankuarentzako obligazioa** delako; hau da, likidatzeko garaia iristen denean, bezeroari itzuli beharko dio jarritako kopurua, sortutako interesekin batera.

2.1 Banku-erakunde batean kontua irekitzeko baldintzak

Adin nagusikoa den edozein pertsona fisiko zein juridikok eska dezake kontu bat irekitzea banku-erakunde batean. Banku-erakundeak kontua irekitzeko baimena eman baino lehen, pertsonen nortasuna eta gaitasun legala (adibidez, adin txikiko batek, baimen gabe, ez dauka gaitasun legalik) egiaztatuko du. Behin bere gaitasuna egiaztatuta, kontua irekitzeko prozesu hau jarraituko du:

- **Kontua irekitzeko eskabidea.** Eskabide horretan gutxieneko datu batzuk agertu behar dira: izen-abizenak edo eskatzailearen izena identifikazio- zenbakiekin (IFK...), nazionalitatea, adina, lanbidea, titularren helbidea, egoera zibila eta kontu mota.
- **Sinaduren erregistroa.** Titularrak eta baimenduak diren pertsonen sinadurak jasoko dira.
- **Hasierako diru-sarrera.** Hasierako diru-sarrerarekin kontua irekitzen da eta harreman komertziala hasten da.
- **Bankuak bezeroari emandako agiriak.** Kontratuaren kopia, erabilera- baldintzak, komisioen tarifak eta jasanarazi ahal dizkion gastuak.
- **Taloitegiak eta txartelak eskatzea.** Kontratua formalizatu ondoren, txeke-taloitegia eta zordunketa-txartelak (tarjetas de débito) nahiz kreditu-txartelak (tarjetas de crédito) eskatzeko aukera dago.

2.2. Banku-kontu motak

Kontuak sailkatzeko hainbat irizpide daude. Puntu honetan soilik titulartasunaren arabera sailkapena ikusiko dugu. Beste sailkapenetatik sor daitezkeen kontuak aurrerago aztertuko ditugu.

Kontuak titulartasunaren arabera sailkatzen baditugu, banakakoak edo kolektiboak izan daitezke.

- **Banakakoak. Pertsona bakarra da kontuaren titularra.**
- **Kolektiboak.** Bi pertsona edo gehiago dira kontuaren titularrak:
 - **Bereizi gabeko kontuak.** Titularretako edozeinek atera dezake dirua (funtsa) gainerakoen sinaduraren beharrik gabe.
 - **Baterako kontuak edo kontu-mankomunatuak.** Titular guztien sinadura behar da funtsak ateratzeko.

2.3. Kontuen funtzionamendua

Kontuak aktiboak edo pasiboak izan daitezke. Gai honetan ikusiko ditugun kontuak pasiboko kontuak izango dira. Beraz:

Ezarpenak edo sarrerak (ordainketak) (abonos) kontuaren titularrak egiten dituen entregak dira (eskudirua, txekueak, transferentzien ordainketak), eta hartzekoaren zutabearen idatziko dira.

Xedapenak (disposiciones) (zordunketak) (adeudos) titularrak egindako diru-irteerak dira, adibidez, eskudirua kentzea, txekueak ordaintzea, ordainagiriak ordaintzea, etab., eta zor-zutabearen idatziko dira.

Kontu baten saldoa kontuan gordailututako zenbatekoa da, hau da, hartzekoaren (ordainketak) eta zordunketaren (zordunketak) kopuruen batuketen arteko kenketa.

Banku-kontua identifikatu ahal izateko zenbakia esleituko zaio. **IBAN** (International Bank Account Number) nazioarteko kode estandarizatua da. 24 digitu ditu. Hona hemen bere egitura paperean:

Herrialdearen kodea	Kontrol-digituak	Erakundea	Bulegoa	KD (kontrol digitu)	Kontu-zenbakia
ES 2 digitu, Espainian	79 2 digitu	2100 4 digitu, banku entitatea	0813 Lau digitu, bulegoa edo sukurtsala adierazten dute	61 Bi kontrol-digitu: lehenak erakundearen eta bulegoaren kodea egiaztatzen du, eta bigarrenak, kontu-zenbakia.	0123456789 Hamar digitu, kontuaren-zenbakia

2.4. Kontuen kitapena

Kontu bat ixteak edo kitatzeak suposatzen du bankuak bezeroarekin dituen harremanak behin betiko etetea. Banku-erakundeak kontua kitatzeko eskubidea dauka honako egoera hauetan:

- Titularra den pertsona fisikoa hiltzen denean.
- Titularra den pertsona juridikoa desagiten denean.
- Porrot-aitorpena dagoenean.
- Funts nahikorik gabe, txekueak etengabe sinatzen direnean.

Ohikoena da bezeroak kontua kitatu nahi izatea, baina tramite hauek bete behar dira:

- Ageriko kontu korronteen kasuan, erakundeak txeki-taloitegia itzultzea eskatzen du erabili ez diren txekuekin batera.
- Aurrezki-kontuetan, berriz, bezeroak aurrezki-libreta itzuli behar du.

3. Ageriko kontu korrontek (Cuentas Corrientes a la Vista)

Ageriko kontu korrontea **diru-gordailu kontratua** da, banku-erakunde eta partikular edo enpresa baten artean egindakoa. Kontratu horren arabera, titularrak funtsak sartzen ditu, eta kontua erabiltzen du ohiko eragiketarak egiteko, erakundearen betebeharrak izanik: horiek gordetzea, funtsak titularraren esku jartzea, eskatutako ordainketak egitea, eta, hitzartutako interesa ordaintzea.

Bezeroak funtsak eskura ditzake txeeen bidez, kutxazainaren bidez eta banku elektronikoaren bidez. Ageriko kontu korrontearen ezaugarriak honako hauek dira:

– **Berehalako erabilgarritasuna**: edozein unetan erabil daitezke kontuko funtsak, erakundeari aldeztu aurretik jakinarazi gabe. Zenbatekoa 3.000 €-tik gorakoa bada, egun bat lehenago jakinarazi behar zaio erakundeari zenbateko hori prest izan dezan.

– **Erakundeak kutxa-zerbitzu** jarraitua ematen du, hau da, bezeroek eskatutako kobrantzak eta ordainketak egiteko konpromisoa hartzen du.

– Izapide **erraza** (tramitación rápida) da, eta baldintza gutxi eskatzen ditu.

– Funtsak **txeke** bidez eskuratu nahi izanez gero, irekitzeko unean eskatuko da. Banketxeak txeke-taloitegi bat emango die bezeroei.

– Kontuari lotutako **zordunketa-txartelak eta kreditu-txartelak** edukitzeko aukera dago. Era berean, posible da nominak eta aldizkako ordainagiriak bertan helbideratzea, kutxazainetatik dirua ateratzea eta transferentziak egitea, besteak beste.

– **Ordainsari eskasa edo nulua** (remuneración escasa o nula): eguneroko dirua kudeatzeko sortutako produktu operatiboa denez, eta ez aurreztekoa, bezeroei sortzen dizkien interesak oso txikiak dira, eta, kasu batzuetan, baliogabeak.

Bezeroei aldizka (normalean hilero) jakinarazten zaizkie kontuan egindako oharra, **banku-laburpena** izeneko dokumentu baten bidez.



Banco Ibérico

EXTRACTO DE CUENTA

Desde 01-01-20__ hasta 31-01-20__

Código de Cuenta Cliente (CCC)

Entidad	Oficina	D. C.	Núm. de cuenta
0051	0547	21	1254788298

TITULAR: Canarias Jeans, S. L.

Fecha	Concepto	Valor	Importe	Saldo
01-01	Saldo anterior			3.528,76
05-01	Pago fra. teléfono	05-01	-91,57	3.437,19
10-01	Ingreso en efectivo	10-01	150,00	3.587,19
15-01	Pago de préstamo	15-01	-392,61	3.194,58
20-01	Cargo compra	20-01	-123,45	3.071,13
25-01	Transf. a su favor	25-01	721,27	3.792,40
31-01	Reintegro cajero autom.	31-01	-80,00	3.712,40
SALDO A 31-01-20__				3.712,40

3.1. Ageriko kontu korrontean eskubideak eta betebeharrak

2. irudia: Titularraren eskubideak eta betebeharrak

Kontu korronteko titularraren eskubideak eta betebeharrak	
Eskubideak	Betebeharrak
- Kontuan saldoa izan - Transferentziak, ordainketa-aginduak eta abonua egin - Txekeak igorri - Fakturen ordainketak helbideratu - Kontuan sartu norberaren sarrerak edo hirugarren batzuenak - Interesak aldizka jaso - Kontuaren laburpena aldizka jaso	- Ez bidali edo agindu eragiketak zorpekoa dagoenean - Ez erabili diru-sarrerak epemuga arte - Hitzartutako gastuak eta komisioak ordaindu - Txeke-taloitegiak gorde - Helbide aldaketen berri eman

1. ARIKETA

Nerua, S.A.k kontu korrontea dauka BBVAn eta hauek dira egindako eragiketak:

1. Kontutik 3.500 euro ateratzeko laguntzaile bat bidaltzen du bankura.
2. 7.350 euroko txekea sinatzen du (Badakigu kontuaren saldoa 6.000 eurokoa dela).
3. Uraren ordainketa helbideratzen du.
4. Une horretan erabakitzen du kontutik 100.000 euro ateratzea.
5. Bankuari banku elektronikoa erabiltzeko eskaera egiten dio.
6. Enpresako langile bat bidaltzen du kreditu-txartelarekin 500 euro ateratzera kutxazain automatikora.

Komentatu egindako eragiketak.

Ebazpena

1. Laguntzaileak baimen legalik gabe ezin du kontutik dirurik atera.
2. Zorpekoa dagoenean ezin du txekerik sinatu.
3. Uraren ordainketa helbideratzeko eskubidea du. Eskubide hori izateko beharrezko agiriak bete beharko ditu.
4. Nahiz eta saldoa eduki, zenbateko handiak ateratzeko banku-erakunde batzuek 24 ordu lehenago jakinaraztea eskatzen dute.
5. Bankuak zerbitzu hori eskaintzen badu, posible da eskakizuna egitea.
6. Langile bat bidali dezake dirua ateratzera, baina konfiantzazko pertsona bat izan behar da, klabeak erabiltzeko ez baita baimenik behar.

2. ARIKETA

Esan eragiketa hauek kontu korronte bidez egin daitezkeen ala ez:

- | | |
|--------------------------|-----------------------------------|
| 1. Transferentziak jaso. | 4. Txek bidezko ordainketak egin. |
| 2. Kredituak lortu. | 5. Maileguak lortu. |
| 3. Transferentziak egin. | 6. Eskudirutan sarrerak egin. |

4. Aurrezki-kontuak edo aurrezki-libretak

3. irudia: Aurrezki-libretak



Hasieran aurrezki-kontuak hiritarren eta familien aurrezkiak eskuratu eta kanalizatzeko sortu arren, gaur egun helburu hori galdu dute, eta egun **aurrezki-libreta** soilik mantentzen da. Aurrezki-libreta bankuak ematen du kontua irekitzerakoan. Gainera, libretarekin hainbat eragiketak (ordainketak helbidera daitezke, transferentziak egin, kreditu eta zordunketa txartelak lortu,...) egin ditzakegu bankura fisikoki joan gabe (Internet bidez), libreta izenduna eta besterenezina da eta.

Libreta edo aurrezki kontu motei dagokienez, banku bakoitzak bere tipologia eskaintzen du. Jarraian, ohikoenak zehazten dira (2.5 taula)

Aurrezki-libreta arrunta Libreta de ahorro ordinaria	Libreta honek hainbat zerbitzu ahalbidetzen ditu, hala nola: ordainketak eta sarrerak helbideratzea, lotutako txartela eta kutxazain automatikoaren bidez eskudirua edukitzea.
Aurrezki –libreta zehatza Libreta de ahorro específica	Helburua aurrezkia sustatzea da. Horien artean, haur eta gazteentzako aurrezki-libreta nabarmentzen da. Kontu mota horietan, titularra adingabea da, eta legezko tutoretza duenak sinatu behar du eskudirua. Kontu honek ez du komisiorik, helbideratzeak onartzen ditu eta, gainera, interesen ordainsari handiagoa du eta erabateko likidezia du.

Etxebizitza aurrezki-kontua. Ageriko gordailua da erabilgarritasun osoarekin, titularren ohiko etxebizitza erosi edo eraberritzeko aurrezkia pilatzea helburu duena. Ohiko etxebizitza erosi edo eraberritzeko kontuan sartuko den zenbatekoari, ezarrita dagoen zerga-arloko araudiaren baldintzak ezarriko zaizkio.

Gaur egun kontu korrante eta aurrezki-kontuen arteko aldeak ia desagertu egin dira eta askotan bi produktuak nahastu egiten dira.

5. Epe finkorako ezarpenak (Imposiciones a Plazo Fijo)

Epe finkorako ezarpenak diru-gordailu kontratuak dira. Bezeroak kapital bat gordailutzen du bankuan, eta, aldi berean, gordailuen zenbatekoak hitzartutako epe batean mantentzeko konpromisoa hartzen du. Trukean, bezeroak interes-tasa bat kobratuko du. Interes-tasa hori ageriko gordailuarena baino altuagoa izango da, zeren eta erakundeak kapitala eskuragarri ez izatea sarituko duen.

Gordailu mota hori libreta baten bidez gauzatzen da; non jasoko diren egindako ezarpenak, epemugak, berriztapenak eta diru-ateratze guztiak.

Libreta izenduna eta besterenezina da; ezin da funtsik atera, ez bere aurka txekerik igorri, ezta ordainketa agindurik egin ere. Gainera, ezin dira ordainketak edo kobrantzak helbideratu. Bezeroak mugaeguna baino lehen gordailututako kapital guztia edo zati bat erabili behar badu, egin dezake, baina horrek interesak murriztuz zigortuko du.

Gordailuaren epea aldagarria izan daiteke, hilabete batetik epe luzeago bat arte. Murrizketa horiek kontuan izanik, gordailuen interesak ere handiagoak izango dira kontu korrante edo aurrezki-kontuetakoak baino. Horrela, gordailuaren epea zenbat eta luzeagoa izan, interes mota handiagoa izango da. Titularrak erakundean irekita daukan kontu korrantean edo aurrezki-kontuan sartzen dira interesak.

3 aldagai hauek hartu behar dira kontuan:

1. **Likidezia.** Kontrakoa itundu ezean, mugaeguna baino lehen ezereztu daitezke. Kapitala ez da ukituko, baina bai sortutako interesak, komisio batekin zigortuko baitira.
2. **Segurtasuna.** Gordailuak finantza-erakundeak eta Gordailuak Bermatzeko Funtsak bermatzen dituzte.
3. **Errentagarritasuna.** Aldatzen da egoera ekonomikoaren arabera.

3. ARIKETA

Duela 3 hilabete banku-erakunde batean **6 hilerako epe finkorako ezarpen** bat egin genuen. Harrezkero, konturatu gara aurreikusia ez geneukan diru-premia dugula. Gure kontuak baino interes handiagoa kobratuko digun kanpo baliabiderik erabili dezakegu? Eta zer egin behar dugu?

4. ARIKETA

1. Aktiboko eragiketak dira...

- a) banku-maileguak
- b) aurrezki-kontuak
- c) alojera-kutxak (cajas de alquiler)

2. Pasiboko eragiketak dira...

- a) kreditu-kontuak
- b) aurrezki-kontuak
- c) gastu-kontuak

3. Gaur egun zenbat digitu ditu banku-kontuko zenbakiak?

- a) 20
- b) 19
- c) 24

4. Zerbitzuak dira...

- a) efektuen deskontua
- b) maileguak
- c) kobrantza kudeaketan dauden efektuen kudeaketa

5. Aurrezki-kontu batean egindako 300 euroko ordainketa edo abonua...

- a) hartzekoan jasoko da.
- b) zorrean jasoko da.
- c) saldoa da.

6. Aurrezki-kontu batean egindako 300 euroko zordunketa (diru-irteera)...

- a) zorrean jasoko da.
- b) hartzekoan jasoko da.
- c) saldoa da.

7. Baterako kontua...

- a) bereizi gabea da.
- b) mankomunatua da.
- c) banakakoa da.

8. Banku-kontuak, titulartasunaren arabera,...

- a) kolektiboak izan daitezke.
- b) banakakoak izan daitezke.
- c) Aurreko biak.

9. Eskudirua ateratzeko banku-kontuko onuradun guztien sinadura behar bada, kontua...

- a) banakakoa da.
- b) mankomunatua da.
- c) solidarioa da.

10. Banku-erakundeek publikoaren funtsak biltzen dituztenean,...

- a) pasiboko eragiketak egiten dituzte.
- b) aktiboko eragiketak egiten dituzte.
- c) zerbitzu-eragiketak egiten dituzte.

11. Ezarpena da...

- a) kontu batetik dirua ateratzea.
- b) kontu batean dirua sartzea.
- c) Aurrekoetako bat bera ere ez.

12. Eskurakoa da...

- a) kontu batetik dirua ateratzea.
- b) kontu batean dirua sartzea.
- c) Aurreko bat bera ere ez.

13. Kontu korrontea iraungi daiteke (caducar)...

- a) titular bakarra hiltzen denean.
- b) pertsona juridikoaren porrot-aitorpena dagoenean.
- c) Aurreko biak zuzenak dira.

14. Zorpekoa edo zenbaki gorriak daude...

- a) interesak ordaintzen ditugunean.
- b) Interes mota % 2 baino altuagoa denean.
- c) kontuan saldo nahikorik eduki gabe dirua ateratzen dugunean.

15. Kontu korronteko titularraren eskubidea da...

- a) txeki-taloitegiak gordetzea.
- b) interesak aldizka jasotzea.
- c) helbide aldaketen berri ematea.

16. Kontu korronte batetik funtsak atera daitezke...

- a) kutxazainen bidez.
- b) txeki bidez.
- c) Aurreko biak zuzenak dira.

17. Zein da kontu korronte eta aurrezki-kontuaren arteko aldea?

- a) Aurrezki-kontuak kontu korronteak baino operatiboagoak dira.
- b) Kontu korronteak aurrezki-kontuak baino interes handiagoak ematen ditu.
- c) Aurrezki-kontuak saldo egonkorragoak ditu (saldos más estables).

18. Aurrezki-kontuak...

- a) libreta bat dauka.
- b) interesak ematen ditu.
- c) Aurreko biak zuzenak dira.

19. Epe finkorako ezarpenetan...

- a) sortutako interesak kontu korrontean edo aurrezki-kontuan sartuko dira.
- b) Interes mota ageriko gordailuei aplikatzen diena baino altuagoa izango da.
- c) Aurreko biak zuzenak dira.

20. Epe finkorako ezarpenetan funtsak epemuga baino lehen ateratzen badira...

- a) nominala eta interesak bermatzen dira.
- b) interesak bermatzen dira.
- c) nominala bermatzen da.

5. ARIKETA

Adierazi hauetako zein jartzen diren kontu korronteko zorrean eta zein hartzekoan:

- a) Bezeroaren aldeko interesak (intereses a favor del cliente):
- b) Aurreko saldo zorduna:
- c) Bezeroak zenbateko bat eskudirutan sartzea:
- d) Ordainketa edo abonua eskudirutan:
- e) Ordaindu beharreko txekia:
- f) Nominaren abonua:
- g) Bezeroaren transferentzia-agindua:
- h) Gure igorpena bezeroaren kargura (nuestra emisión a cargo del cliente):
- i) Diru-ateratzea:
- j) Gure kobrantza bezeroaren kontutik: